

ZURE IRITZIA ADIERAZTEN



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. maila

Nerea Badiola

ZURE IRITZIA ADIERAZTEN

Sekuentzia didaktikoak barnean hartzen dituen jakintzagaiak: Hizkuntzak, IKTak eta Gizarte Zientziak.

Gaia: Zure iritzia adierazteko eskutitza.

Maila: 2. DBH

Saio kopurua: 7 saio

Proposamenaren testuingurua:

Ikasleek gure gizartean dauden hainbat errealitate onargarri antzematen dituzte, baina baita hainbat injustizia ere. Ikasle horietatik asko inplikatzeko eta laguntzeko prest dago; horretarako, euren iritzia eraiki eta defenda dezaten ondo informaturik egon beharko dute eta gizartean eztabaidatzen diren gaiei buruzko baliozko argudioak eraikitzen ikasi beharko dute.

Proposamen honetan, hizkuntzari loturiko bai ahozko bai idatzizko trebeziak lantzeko asmoz, ikasleek gaurko gai bati buruz duten iritzia azaltzeko argudio-testu bat sortuko dute, kexa-gutuna, hain zuzen ere. Testuaren hartzailea erakunde publiko bat izango da; horrela, ekoizpenaren funtzionaltasuna bermatuta egongo da.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (guztietan)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (2., 4., 6. eta 7. jardueran)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (2., 3., 4., 5. eta 8. jardueran)
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (1., 4., 7. eta 8. jardueran)
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (5. eta 8. jardueran)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Argudio-testuen egitura eta ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ Testu bat sortzen laguntzeko IKTak erabiltzen jakitea.
- ✓ Idatzizko hizkuntzaren berezitasunez ohartzea.
- ✓ Testuaren kohesioaren garrantzia ulertzea.
- ✓ Lana planifikatzea eta ondo garatzea.
- ✓ Talde-lanean trebatzea.

Edukiak:

- ✓ Argudio-testuen ezaugarrien eta elementuen azterketa.
- ✓ Idatzizko hizkuntzaren ezaugarriak.
- ✓ Testu-antolatzaileak eta puntuazio-marken erabilera.
- ✓ Iritzia eta argudioen analisia.
- ✓ Sarean dauden baliabideen bilaketa eta erabilera.
- ✓ Gutun formalen ezaugarriak

- ✓ Talde-lanean aritzea.

Jardueren sekuentzia:

a) Planifikatzea

Zein da zure iritzia?

Zer egingo dugu?

b) Gauzatzea

Iritzi-testuak, nolakoak dira?

Iritzia eta argudioak.

Informazioa biltzen.

Iritzi-testua idazten.

Gutun formal.

c) Erabiltzea

Kexa-gutuna idatzi eta erakundeari bidali.

Ebaluazioa:

Adierazleak:

- Ea argudio-testuen ezaugarriak eta elementuak bereizteko gai den.
- Ea idatzizko hizkuntzaren ezaugarrien garrantziaz ohartzeko gai den.
- Ea argudio-testu koherente eta kohesionatua ekoizteko gai den.
- Ea munduko arazo baten aurrean zer edo zer egiteko interesa izateko gai den.
- Ea kexa-gutun formal bat taldean ekoizteko gai den.
- Ea bere ekoizpenerako baliabide digitalak egoki erabiltzeko gai den.

Tresnak:

- ✓ Sekuentzian proposatuko direnak:

Hasierako ebaluazioa: 1. eta 2. jarduerak

Prozesuaren ebaluazioa:

Ebaluatzeko txantiloak (3. eta 6. jarduera).

Kexa-gutuna (auto)ebaluatzeko txantiloia (8. jarduera).

Amaierako ebaluazioa: azken ekoizpena

- ✓ Irakasleak erabiliko dituen beste batzuk:

Prozesuaren behaketa eta jardueren berrikusketa.

1. JARDUERA. Zein da zure iritzia?

Hona hemen gaurkotasuna duten zenbait gai arazotsu:



.....
A Batzuetan diru gehiegi ematen zaie beste herrialde batzuei eta guretat agian ez da geratzen.

B Ikusirik Afrikan 40000 haur hiltzen direla urtero ez al zaie diru laguntzarik edo beste moduko laguntzarik eman behar?

.....
A Hondakin kopurua murriztea gure esku dagoela uste dut.

B Beharrezkoak diren gauza asko lortu edo egiteko kutsatu beharra dago.



.....
A Zigorak gogorragoak izan beharko lirateke. Hor daude, zerbait oso txarra egin dutelako, min asko egin dutenez, min hori sufritu behar dute,

B Giza eskubideak guztiz borbotatzen dira. Askotan jende errugabea hiltzen du

.....
A Berdintasuna giza eskubidea da, eta ez zaio inori kendu behar bere sexuarengatik, arrazarengatik edo erlijioarengatik.

B Etorkinak hona etortzen dira eta lanpostuak kentzen dituzte.



.....
A Oso garrantzitsuak dira ikasleek gaiari buruz dakitena jakiteko eta burmuina erabiltzeko.

B Gutxiago izango bagenitu, gauzak egiteko denbora gehiago izango genuke, adibidez, lagunekin egoteko, lo egiteko, telebista ikusteko, jolasteko, e. a.

Binaka, lehenengo, irakurri eta aukeratu honako izenburu hauetatik bat aurreko gai bakoitzarentzat. Gero, gai bakoitzari lotutako adierazpen bietatik bat aukeratu: A edo B; zuen aukera defendatzeko eta beste aukera ezeztatzeko arrazoiak taulan idatzi.

KUTSADURA

IMMIGRAZIOA

AZTERKETAK

HERIOTZA-ZIGORRA

DIRU LAGUNTZAK TXIROEI

AUKERA	ARRAZOIAK	ERAKUNDEA
A		
B		
A		
B		
A		
B		
A		
B		
A		
B		

Ikusitakoak munduan dauden egoera bidegabe guztietatik gutxi batzuk baino ez dira. Ez duzue uste egoera horiek salatu eta haiek direla-eta kexatu behar dugunik? Gainera, gero eta gehiago dira gure iritzia eta kexak entzuteko eta gure eskubideen alde lanean ari diren erakundeak; hortaz, badugu nora jo gure kexa adierazteko.

Zer dakizue hauetaz?



International Amnesty

Arartekoa Nazio Batuek Administrazioko kexa-zerbitzuak

Taulan idatzi dituzuen arrazoiak azaltzeko nori edo nortzuei idatziko zeniekete kexa-gutuna kasu bakoitzean?

2. JARDUERA. Zer egingo dugu?

Gaur egun badira zenbait eztabaida interesgarri eta arazogarri 1. jardueran ikusi dugun legez. Gai horiei buruz zuek duzuen iritzia jakinaraziko diozue gaia konpontzeko edo arintzeko eskumena duen erakunde publiko bati.

Horretarako, hiruko taldeak egin eta lanean hasiko zarete. Lehenengo, erabaki zer gairi buruzkoa izango den zuen kexa-gutuna.

Gosea, azterketak, kutsadura, immigrazioa, heriotza-zigorra...

Orain, aukeratu zuen ustez zer egin beharko dugun sekuentzia honetan, egoera konpontzeko edo arintzeko ahaleginak egiteko balioko duen kexa-gutun on bat burutzeko. Aldatu onartzen ez dituzuenak, eta gehitu agertu ez baina zuen ustez kontuan eduki beharrekoak direnak.

ZER EGINGO DUGU	BAI/EZ	ZERGATIK?
Iritzi-testuen ezaugarriak aztertuko ditugu.		
Kexa-gutunen ereduak aztertuko ditugu.		
Lagunarteko gutunen ezaugarriak aztertuko ditugu.		
Iritzia nola adierazi eta indartu aztertuko dugu.		
Ahots-doinua eta intonazioa landuko ditugu.		
Ikasle bakoitzak bere gutuna idatziko du.		
Keinuak eta gorputz-jarrera landuko ditugu.		
Gaiari buruzko informazioa sarean bilatuko dugu.		
Ez dugu puntuazioa zainduko, idatzizko testuetan ez baita inportantea.		

Erakundeari buruzko informazioa bilatuko dugu.		
Gutuna bidali aurretik ikaskideek aztertuko dute.		

Amaitzeko, talde handian adostuko ditugu egin beharrekoak.



3. JARDUERA. Iritzi-testuak, nolakoak dira?

Banaka, irakurri honako testu hauek eta ondoren, behaketa-txantiloia bete, arrazoituz. Testuak irakurri baino lehen, lagungarri izango zaizu behaketa-txantiloia irakurtzea. Ondoren, konparatu zure erantzunak eta taldekideenak. Amaitzeko, adostu zuen kexa-gutunak behaketa-txantiloiko ezaugarrietatik zeintzuk bete beharko dituen, erabakiak ondo arrazoitu.

1. testua

Santo Tomas azoka

ABENDUAK 21 SANTO TOMAS FERIA (BILBO, DONOSTIA, GASTEIZ...)

IX. mendean, Euskal Herriko laborantzako lur sail gehienak errentariak (maizterrak) lantzen zituzten. Errentariak lur sailarekin zuen lotura juridikoa aitarengandik semearengana iragaten zen, belaunaldiz belaunaldi. Lurraren errenta beti egun berean ordaintzen zen, normalean, San Martin egunean, baina askotan epea luzatu egiten zen Santo Tomas egunera arte. Nagusiak, normalean, ez zituen lurak lantzen, eta hirian bizi izaten zen. Baserritar asko eta asko hirietara joaten ziren egun seinalatu hartan, alokairua ordaintzeko diruarekin eta kapoi pare batekin. Ordainetan, bazkari bat ematen zien. Baserritarrek, hiriburuan zeudela aprobetxatuta, herrietako denda xumeetan aurkitzen ez zituzten artikuluak erosten zituzten, eta, horrela, baserriko produkturik onenak saldu. Urteak joan urteak etorri, feria antolatu beharra zegoela ikusi zen, eta hala sortu zen Santo Tomasetakoa. Euskal Herriko udalerrietan garraiobideak hobetu zirenean eta baserri guztietaraino pistak egin, feria ez zen gehiago beharrezko izan. Baina baserritarrek, ordurako baserriaren lur gehien jabe eginak, tradizio zaharrari heldu zion, eta jarraitu zuen hirietara etortzen Santo Tomasetan. Horrexegatik, feriak bizirik iraun du, gaur arte.



Karramarro aldizkaria

2. testua

AHATEAK ETA DORDOKA

Putzuzulo batean bi ahate eta dortoka bat bizi omen ziren. Toki berean bizi ziren eta horregatik oso lagunak ziren.

Garai batean putzua lehortu egin zen eta urik gabe geratu ziren. Ahateek orduan lekuz aldatzea erabaki zuten. Ura behar zuten.

Eta dortoka agurtzera joan ziren:

- Gu bagoaz hemendik, bestela ur falta ikaragarria izango dugu.

Dortokak, berriz:



- Zuek ez duzue inoiz ur faltarik izan. Leku batean ez bada bestean aurkitzen duzue. Ni naiz hemen zorigaitzekoa. Aizue, zuekin joan nahi dut nik ere, bestela hil egingo naiz eta.

Orduan ahateek esan zioten:

- Eramango zaitugu geurekin, baina bidean ez duzula inorekin hitz egingo agindu behar diguzu.

- Konforme, baina nola eramango nauczue?

- Egur-zati bat hartuko dugu. Nik mutur batetik helduko diot eta honek bestetik; zu erdian eramango zaitugu.

Oso pozik jarri zen dortoka. Airean zeramaten, gizon batzuk ikusi zituztenean.

Gizonak ezin sinetsirik zeuden.

- Begira, begira, dortoka hegaka!

Hau entzutean, dortoka harro-harro jarri zen eta erantzun zien:

- Zuek baino gehiago naiz

Eta ahoa irekitzean, lurrera erori zen eta bertan hil.

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/es/user/anon/page/ipuinakdetalle?gid=10301>

3. testua

ESKOLAKO ORDUTEGIA

IRATI,JULENU,MIKEL,BIDATZ eta IOSU gara,6.Bmailako ikasleak eta eskolako ordutegiaz pentsatzen duguna azaldu nahi dizuegu.

Guk pentsatzen dugu ordutegi honek eragin txarrrak sortu dituzela gure eskolan.Alde batetik,irakasleenazalpengatik,ikasleen tontakeriengatik eta saiok 5 minutu gutxiago iraunteogatik,oso motzak geratzen dira goizeko lehenengo saioak eta honen ondorioz lanak etxerako geratzen zaizkigu.Beraz goizeko saioak pixka bat luzeagoak izatea proposatzen dugu.Beste aldetik esan nahi dugu gustatuko litzaiagukela izatea bakarrik goizeko ordutegia,institutoan bezala eta arratsaldeak libre izango bagenitu denbora gehaidigo izango genuke guk egin nahi ditugun gauza guztiak egin ahal izateko.

Gure proposamenak kontutan edukitzea gustatuko litzaiaguke.Besterik gabe agur.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/~ipz/izur/txokoa/e.gurea3.pdf>

BEHAKETA-TXANTILIOIA

EZAUGARRIAK	1. testua	2. testua	3. testua	Gure testua
1. eta 2. pertsonan idatzia dago.				
3. pertsonan idatzita dago.				
Orainaldian idatzita dago.				
Lehenaldian idatzita dago.				
Hitz teknikoak erabiltzen dira.				

Hitz arruntak erabiltzen dira.				
Nork idatzi duen argi azaltzen da.				
Igorle eta hartzaileen arteko dialogoa ematen da.				
Informazioa ematea eta entretenitzea du helburu.				
Jasotzailea konbentzitzea, haren iritzia aldaraztea du helburu.				
Informazioa ulertaraztea, hau da, gai bati buruzko ulermena eta ezagutza maila handitzea du helburu.				
Iritzi-testua edo argudio-testua da.				

Oharra: irakurri testua behin, zeri buruzkoa den ulertzeko; ondoren, irakurri testua berriro, eta, bide batez, ezaugarriak azpimarratzen joan.

4. JARDUERA. Iritzia eta argudioak.

4.1. Irakurri honako testu hau, eta, ondoren, bete koadroa.

4. testua

GAZTETXEAK

Gaztetxeak desalojatzeari ongi iruditzen zaizue?

Niri ez, aktibitate asko egiten baitugu han.

Jendeak pentsatzen du gazteak ez dugula egoteko lekurik behar. Nik, aldiz, pentsatzen dut gazteak egoteko lekuak behar ditugula, gure denbora librean, gure aktibitateak egin nahi baititugu, gaztetxetan egoteko aukera izan behar dugu. Azkeneko San Ferminetan, esaterako, Euskal jai gaztetxean jendea hor gelditzen zen; hortaz, gazteek bagenuen leku bat egoteko.

Gaur egungo gaztetxeak desalojatzeari ongi iruditzen zaiela esaten du jendeak. Nik, aldiz, pentsatzen dut gaztetxeak desalojatu beharrean, udaletxeak lokalak eman beharko zizkigutela. Gazteek ez baitute lokalik egoteko. Orain dela aste batzuk, esaterako, Iturramako tximista gaztetxea desalojatu zuten; hortaz, Iturramako gazteria oraindik lokalik gabe dago bere aktibitateak egiteko.

Jendeak gaztetxeak ilegalak direla esaten du. Nik, aldiz, legalak direla pentsatzen dut okupatutako etxeak ez baitzeuden jendeztatuak. Iturramako gazteek "Sancho el Fuerte" kalean zegoen jende gabeko etxea okupatu zuten. Handik eta 5 hilabetera polizia espainolak eta Simon Santamariaren gizonak tximista gaztetxean sartu eta desalojatu egin zuten.

Jendeak gaztetxetan dauden pertsonak yonkiak direla pentsatzen du. Nik, berriz, pertsona normalak direla pentsatzen dut, gaztetxetan dauden pertsonak lanean dabilta; hortaz bakarrik bere denbora libretan joaten dira gaztetxeetara bere aktibitateak egiteko.

Jendeak esaten du gaztetxeak euskaldunak izateagatik desalojatzeari ongi iruditzen dituztela. Nik, aldiz, pentsatzen dut euskaldunak izateagatik, gure denbora librean gauza asko egiten dugulako bertan eta oso ondo pasatzen dugulako desalojatzeari ongi iruditzen dituztela; esate baterako Errotxapeako Irule gaztetxean, aktibitate asko egiten ziren zinea, txalaparta, esku pilota, kontzertuak eta abar, ondorioz jendeak oso ondo pasatzen zuen.

Hori guztia dela eta, argi dago gazteek leku apropos bat behar dugula aktibitateak egiteko, horregatik udaletxeari lokal apropos bat emateko eta dauden gaztetxeak ez desalojatzeari eskatzen diogu, baina udaletxeak ez digu lokalik ematen eta daudenak desalojatzeari ari da.

www.pnte.cfnavarra.es

Testuaren gaia	
Egilearen iritzia	
Aldeko argudioak	
Kontrako argudioak	
Ados bai/ez Zergatik?	

Oharra: kontrako argudioak ezeztatzea ere bada argudiatzeko era bat.

IRITZIA Iritzia adierazteko baiezeko esaldi osoak erabiltzen dira. Esaldiak argiak, zuzenak eta testuan erraz ikusteko modukoak izan behar dira.	ARGUDIOAK Argudioak igorleak bere iritzia erabiltzeko, ematen dituen arrazoiak dira. Eraginkorrak izan daitezten arretaz aukeratuak eta ondo adierazita egon behar dira.
---	---

4.2. Taldeka, irakurri honako koadrotxoetan dauden argudio hauek, eta erabaki zuentzako baliozkoak diren ala ez. Zuen erabakiaren zergatiak adierazi.

- | | |
|---|---|
| <p>1. Erretzea ez da hain txarra! Nire aitonak erre egiten zuen eta 100 urtera heldu zen.</p> | <p>2. Zentral nuklearren aurkakoak sasiekologistak dira: uste handi eta jakinduria gutxi.</p> |
| <p>4. Ez pasa inoiz aldamiu baten azpitik, zoritxarra besterik ez dakar eta! Lehengoan gazte bat pasa zen, eta arratsaldean orkatila bihurrituta eraman zuten ospitalera.</p> | <p>3. Mesedez, ez jarri isunik! Bi ume txiki ditut eta langabezian nago.</p> |
| | <p>5. Athleticen kapitainak aldaketa klimatikoarena asmakeri hutsa dela dio, eta arrazoi osoa du.</p> |

1. BAI/EZ	Zergatik? _____	Mota _____ _____ _____ _____ _____
2. BAI/EZ	Zergatik? _____	
3. BAI/EZ	Zergatik? _____	
4. BAI/EZ	Zergatik? _____	
5. BAI/EZ	Zergatik? _____	

Orain, ahalegindu txartzat eman dituzuen argudio horiek honako mota hauetatik batean sailkatzen. Ondoren, talde handian zuzendu ditzakezue eta gelakideekin konparatu.

ARGUDIO OKERRAK

Argudio ez zuzenak arrazoizko logika gaizki erabiltzearen ondorio dira:

- a. Partikularra dena orokortzea.
- b. Kausa-ondorio harreman faltsuak ezartzea.

Argudio faltsuak arrazoizko logikatik kanpo dauden limurtze erak dira:

- c. Hartzailearen sentimenduetara jotzea.
- d. Igorlearen ospea erabiltzea.
- e. Irain egitea.

5. JARDUERA. Informazioa biltzen.

Dagoeneko erabakita duzue kexa-gutunaren gaia; orain, defendatuko duzuen iritzia eta argudioak garatuko dituzue. Baina ez ahaztu igorleak, bere iritzia indartzeko, argudio eraginkorrak eta sinesgarriak eman behar dituela. Hori dela eta, argudio horiek ondo aukeratuta eta adierazita egon behar dira, hau da, argudio egokiak izan behar dute eta horiek indartzeko informazioa erabili behar duzue.

Horretarako, honako helbide elektroniko hauetara jo dezakezue, zuen argudioak defendatzeko informazio nahikoa lortzeko. Beste unitatean egin duzuen legez, ateratako informazioa fitxetan antolatu eta datu guztiak karpeta batean jaso.

Helbide elektronikootan zuen hartzaile izango den erakundeari buruzko informazioa ere lortuko duzue.

INFORMAZIOA BILTZEKO NORA JO

Euskaraz:

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala: <http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>

Kontsumitzaileen eskubideak: <http://www.euskonews.com/0344zbnk/gaia34401eu.html>

Hirian, Giza Eskubideak babesten dituen Europako Karta:

<http://www.donostiagizaeskubideak.org/>

Arartekoaren web-orria: <http://www.ararteko.net/>


International Amnesty: <http://www.es.amnesty.org/eu/egon/grupos/euskadi/>

Gaztelaz:


Haurren Eskubideen Deklarazioa: http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/25_sp.htm

Gazteen artean bakea, elkarrekiko errespetua eta herrien arteko elkar-ulertzea bultzatzeko deklarazioa: http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/65_sp.htm

Nazio Batuak: <http://www.un.org/es/>



Zenbat argudio eman ditzakezue kexa-gutunean, zuen iritzia indartzeko? Eta, zenbat kontrako argudio ezeztatu? Bildu zuen iritzia indartzeko erabiliko dituzuen argudioak, aldekoak eta kontrakoak, eta horiek indartzeko informazioa honako eskema honetan. Ondoren, azaldu alboko taldekoei zein den defendatzen duzuen iritzia eta zein diren horretarako erabilitako argudioak. Horiek esan beharko dute zeuen argudioak euren ustez baliozkoak diren ala ez. Amaitzeko, zeuek beste talde horren argudioak aztertuko dituzue.





Informazioa



6. JARDUERA. Iritzi-testua idazten.

Informazioa bildu ostean, iritzi-testua idazteko momentua heldu da. Baina testua idazten hasi baino lehen, aztertu dezagun nola lortu ondo kohesionatutako testu bat. Hau da, testua osatzen duten elementuak (hitzak, esaldiak...) elkarri lotuta doaz eta horiek josteko erabiltzen ditugun baliabide batzuk daude, baliabide horiek ondo erabiltzen baditugu ondo kohesionatutako testua lortuko dugu. Ikusi ditzagun batzuk.

6.1. Hiruko taldean, taldekide batek honako testu hau irakurriko du; besteek, berriz, entzun egingo dute, eta honako galdera hau erantzun:

Zer da testu honi falta zaiona?

5. testua

KUTSADURA MURRIZTU


Mundu guztiak nahi du kutsadura kopurua murriztea poloak urtzetik gelditzea berotegi efektua bukatzea baina zer egiten dugu hori lortzeko Lehenik eta behin beste energia iturri batzuk gehiago erabili beharko genituzke esaterako eguzki indarrak Bestalde garraio publikoa gehiago erabili beharko genuke gainera seguruenik gasolina erostea baino merkeago aterako zitzagula Hala ere egia da beharrezkoak diren gauza asko lortu edo egiteko kutsatu beharra dagoela baina norabait joan behar baldin baduzu garraio publikoa har dezakezu eta adibidez ogia egiten duten lantegiak produktu hori sortzeko energia eguzkitik har dezakete Hori guztia dela eta, kutsadura kopurua murriztea gure esku dagoela uste dut

Zaila da irakurtzea nahiz ulertzea, ezta? Puntuazio-markarik gabeko testua duzu, eta hori da zailtasunaren arrazoia. Hona hemen puntuazio-marka batzuk, ea ondo lotzen duzuen markaren izena eta marka bakoitza noiz erabiltzen den azaltzen duen

testua.

Irakurketan egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak markatzeko erabiltzen da.	KOMA
Gaztelaniaz ez bezala, euskaraz marka hauek esaldiaren azkenean bakarrik jartzen dira	PUNTU ETA KOMA
Pausaldi luzea adierazten dute. Baina puntu bakarrik ez bezala, hauek nolabaiteko segida edo argibidea adierazten dute.	PUNTUA
Periodoak zentzu osoa duenean, azkenean jartzen da, horrela pausaldi luzea adieraziz. Laburduren ondoan ere erabiltzen da.	GALDERA-MARKA HARRIDURA-MARKA
Jeneralean, komak baino pausaldi luzeagoa adierazten du.	BI PUNTUAK

Ondoren, erabili itzazu 5. testuan, ondo pentsatuz zein erabili behar duzuen eta noiz. Amaitutakoan, taldeko batek ozenki irakurriko du testua eta denon artean erabakiko duzue ea testuak orain puntuazio egokia duen ala ez. Ziur egoteko konparatu alboko taldeak idatzi duenarekin.



6.2. Bakarka, jarri testu-antolatzaile hauek dagokien hutsunean, 6. testuan. Ondoren, konparatu taldekideek egin dutenarekin.

Hori guztia dela eta, Lehenik eta behin, Gainera, Horren ondorioz, Bestalde,

6. testua

Bullying-a

Bullyingaren aurka dauden pertsonak geroz eta gehiago dira. Eta, azken urte honetan, bullyingaren kasuak oso larriak eta asko izan dira. Hondarribiko Jokinen kasua hainbeste oihartzun izan eta gero, hitzetik hortzera zebiltzan gaia izan zen hura. Nik neu, esan behar dut, hori ez zaidala batere ongi iruditzen. Eta bullyinga egiten dutenei kartzelara eramatearen alde nago.

_____, bullyinga jasaten dutenek ez lukete jasan beharko, eta gainera asko sufritzen dutela badakigu. Suizidioak suertatzen dira, etab.

_____, bullyinga oso larria da, gazte eta ume asko sufritzen dutelako. Dena den, esan beharra dago bullyinga sufriarazten dutenek arazo psikikoak nahiz fisikoak izaten dituztela. Bistakoa da klasean oso isilik geratzen direla eta harreman asko egiten ez dituztela. Haiei laguntza ez diegu ematen eta batzuetan ez dakigu zer gertatzen zaien, kontatzen ez digutelako. _____, bullyinga sufriarazten dutenek familian gaizki pasatzen ari direlako da kasu askotan, baina hori ez da aitzakia beste pertsonak sufriarazteko. Bullyinga egiten dutenek filmetan eta gizartearen dagoen indarkeriagatik ikasten dute ere.

Hori dela eta, arreta asko izan behar da ume eta gazteekin, batzuek etxean ez baitute ezer esaten. Psikologoak behar direla uste dut eta bizi zaletasun kaltegarritzat jotzen dut. _____, niretzako, bullyinga egiten duten pertsonen zigor gogorra edo kartzelara eramatea hoberena izango litzateke.

<http://www.blogari.net/iritziak?cat=1645>

Orain, lotu antolatzaile talde bakoitza duen funtzioarekin.

...ri dagokionez,
Era berean,
...ren ondoren,
Halaber,
Jarraian,
Beste ikuspegi batetik,
Bestalde,
Batetik... bestetik...
Bestela esanda,
Gainera,
Ez hori bakarrik,
Izan ere,
Horrez gain,
...

Azkenik,
Amaitzeko/Bukatzeko,
Hitz gubxitan,
Azkenik, zera...
Hitz batean,
Ondorioz,
Aurreko guztiaren ondorioz,
Horrenbestez,
Laburbilduz
...

Testu honen helburua hauxe da:
Hasteko,
Ezer baino lehen,
Lehenik eta behin,
Lehen-lehenik,
Lehenengo eta behin,
Jorratuko dudun gaia hauxe da:
Egia da...
Sarrera gisa esango dugu...
...

Testu bat hasteko

Ideiak gehitu eta antolatzeko

Testu bat amaitzeko




6.3. Testua idazteko ordua heldu da. Hartu 4. jardueran lortu duzuen informazioa eta ekin. Mesedegarri izango zaizue testuaren gidoia edo eskema egitea. Ez badakizue nola, aztertu 6. testua eta ahalegindu haren atalak bereizten.

A! Ez ahaztu orain arte jardueretan ikusi duzuen aplikatzea. Laguntzeko kontrol-orria duzue: hor sekuentzian landutako eta iritzi-testu batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak dituzue.

Idatzitakoan, taldeko batek testua ozenki irakurriko du eta besteek arretaz entzungo diozue. Ondo ulertzen al da testua? Kontrol-orriko ezaugarriak betetzen al ditu?

KONTROL-ORRIA	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
• Jasotzaileak konbentzitzeko xede argia du testuak.		
• Egitura argia du: sarrera (iritzia), gorputza (argudiatzea) eta konklusioa.		
• 1. eta 2. pertsonan idatzita dago.		
• Igorle eta hartzaileen arteko dialogoa gertatzen da.		
• Igorleen iritzia argi dago.		

• Iritzia defendatzeko argudioak argiak dira eta ondo garatuta daude.		
• Kontrako iritzia ezeztatzeko argudioak ondo erabili dituzte.		
• Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du.		
• Paragrafoak euren artean ondo lotuta daude. Testu-antolatzaileak ondo erabilia daude.		
• Puntuazioa egokia da.		
• ...		
TESTU HAU ARGUDIO-TESTU EGOKIA DELA USTE DUZUE?		



7. JARDUERA. Gutun formala.

Taldeka, aukeratu eta jarri gutunaren atal bakoitzaren izena:

Amaierako agurra, sinadura, data, iritzi-testua, hartzailearen datuak, hasierako agurra

	Barakaldoko alkatea Udala Herriko plaza 48902 Barakaldo BIZKAIA
	Barakaldo, 2008ko otsailaren 21ean
	Alkate jaun/andre hori
	Hamabi urteko ikaslea naiz eta zuregana zuzentzearen arazoa, Barakaldon pilak eta medikamentuak birziklatzeko zakarrontzi gutxi egoteari buruzko nire iritzia egertzea da.
	Badakit Barakaldon gero eta birziklatzeko zakarrontzi gehiago daudela, baina, bakarik plastikoa, papera eta beira birziklatzeko dira. Egia da, gero eta gutxiago erabiltzen direla pilak, baina etxean geratzen diren pila zaharrak oraindik hor daude zakarrontzi gutxi daudelako.
	Medikamentuekin berdina gertatzen da. Farmazia gutxitan daude medikamentuak birziklatzeko zakarrontziak.
	Hortaz, medikamentuak birziklatzeko zakarrontziak egotea farmazie gehiagotan eta beste zakarrontzien ondoan pilak birziklatzeko zakarrontzi gehiago egotea eskatuko nizuke.
	Nire proposamenak zerbitzutarako balioko dizuelakoan, arazoa konpontzeko zuen esku dagoen guttia egitea eskatzen dizuet.
	Horrenbestez, agur! erdi.
	Izp.: Nerea Santiago Batiz 
	http://gureahotsa.blogspot.com/search/label/Eskutitzak

Zuen kexa-gutuna osatzeko esapide egokiak aukeratu beharko dituzue. Hona hemen adibide batzuk. Lehenengo eta behin, ezkerreko zutabean dituzuen esapideak sailkatu eredua (1 eta 2) eta motaren (A, B eta C) arabera.

Adeitasunez, agur,
Begirunez, agur,
Horrenbestez, agur,
Besterik gabe, agur,

.....

A. Hasierako agurrak

Antzuolan, 2002ko azaroaren 7an
Arrasate, 2002ko azaroaren 7a
Oñati, 2002-11-07

.....

1. Eredur hurbilagoa

Adiskidea:
Adiskideak:
Adiskide hori:

.....

B. Data edo eguna

Agur bero bat,
Hurrengo arte,
Ondo izan eta
ikus arte

.....

2. Eredur formal/neutrala

Jaun/Andrea(k):
Jauna(k):
Andrea(k):
Agur t'erdia:
Jaun/andre hori:

.....

C. Buikaerako agurrak

8. JARDUERA. Kexa-gutuna idatzi eta erakundeari bidali.

Gutunaren atalak ondo zehaztu ostean, kexa-gutuna idaztekoa prozesua burutuko duzue. Hau da, aurreko jardueran idatzi duzuen iritzi-testua erabilita kexa-gutuna idatziko duzue. Ez ahaztu gutun formalaren atalak izan behar dituela eta erregistro egokian idatzita egon behar duela. Gutuna idazteko ordenagailua erabiliko duzue eta, testu-zuzentzailea erabiliko duzue.

Ondoren, gutuna beste talde batekin trukatu duzue, eta honako koadro honetako zuzenketa-irizpideak erabilita aztertuko duzue. Amaitzeko, beste taldeak egindako zuzenketak aztertu, eta zer edo zer hobetzerik badago zuzendu. Irakasleak batuko ditu azken gainbegiratutxoa emateko; ondoren, gutunak bidaltzeko prest egongo dira.

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	Bai/Ez
EGOKITASUNA	- Jasotzailea konbentzitzeko xedea du testuak. - Igorleak eta hartzaileen arteko dialogoa gertatzen da. - Testua subjektiboa da, iritzia adierazten du. - Erregistro bakarra eta egokia da testu osoan: formala.	
KOHERENTZIA	- Kexa-gutunaren atal guztiak ageri dira eta era egokian. - Igorleen iritzia argi dago. - Iritziaren aldeko argudioak nahiko dira eta ondo garatuta daude. - Kontra-argudioak ondo erabiltzen dituzte. - Paragrafo bat baino gehiago erabili dituzte eta bakoitzak ideia bakarra garatzen du.	
KOHESIOA	- Paragrafoak euren artean ondo lotuta daude. - Testu-antolatzaileak ondo erabili dituzte. - Puntuazio-markak ondo erabili dituzte.	
ZUZENTASUNA	- Perpausak sintaktikoki ondo eratuta daude. - Ortografia zaindua du. - Data ondo ezarrita dago. - Hartzailearen datuak ondo ezarrita daude. - Sarreraren eta azken agurrean esamoldeak egokiak dira.	

